

## PARKEA

Aiora Amenabar Etxabe

*Zestoa*

Han zihoan umea,  
parkean ezin kabiturik,  
harrapatu nahian,  
baloiaren atzetik.  
Han zihoan txakurra,  
bere pozarekin,  
saltoka eta korrika;  
umea aurretik;  
Han zihoan ama,  
beldurrez beterik,  
larri batean  
ezin harrapaturik.  
Han zihoan jabea  
deika txakurrari;  
honek ez zion egiten  
inori kasurik.  
Zer gertatuko?  
Umea putzura erori...  
zakurra atzetik...  
ama beldurturik  
jabeari zer gertatu,  
ezetz jakin!  
Denak bustirik.